



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko urriaren 22a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako Gobernua garatzen ari den eta garatu nahi duen politika ekonomikoari eta “Gara-pen ekonomikoaren eredu berriari” buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (4. or.).
- Jabeldura, Toki administrazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (5. or.).
- Jabeldura, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak sinaturiko hirigintza-hitzarmenak betetzeari buruzkoa. Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (6. or.).
- Jabeldura, Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak errekurritutako 39/2006 Legearen zenbait alderdi konpontzeko negoziaketan nondik norakoei buruzkoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak egina (7. or.).
- Jabeldura, 2007ko martxoan eta apirilean izandako uholdeek kaltetutakoen aldeko neurriak ezartzen dituen 16/2007 Foru Legea betetzeari buruzkoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak egina (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den prozedura berriro abiaraz dezan Ezkabako Gotorlekua eta bere lurak eskuratzeko, Defentsa Ministerioaren lagapenaren bidez. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, RTVE korporazioaren administrazio kontseilua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira eskualdeari egokitutako edukiak dituen programazioa eskaintzeko gai den irrati eta telebista lurralde-egitura bat berma dezaten Nafarroan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den diru kopurua jar dezan Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziaturaren 5. mailarako beka edo laguntzari aurre egiteko 2007-2008 ikasturtean. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (10. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du txirotasunaren aurkako mobilizazio-astea ospatzearekin. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, atzo Galdakaon eginiko atentatua gaitzestekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, gaur egun Sarrigurenen hezkuntzako dotaziorik ez egotearen arrazoiei buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (13. or.).
- Galdera, 1998. urtean Nafarroako Gobernuak eta Eguesibarko Udalak zenbait dotazio sustatzeko sinatu zuten hitzarmenari buruzkoa, zeinen bidez zehazki osasunaren arloan kontsultategi mediko eta osasun etxe bat sortzeko konpromisoa ezarri baitzen, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (13. or.).
- Galdera, iragan urriaren 9an Luis Javier Fortún Pérez de Ciriza jaunak emandako hitzaldiaren iragarkiak zergatik idatzi ziren gaztelera hutsez jakitekoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko Gobernuak lehendakaria ados dagoen legegintzaldi honetan Hezkuntza Departamentuko aurrekontua igo eta Nafarroako BPGaren % 6ra hurbiltzearekin, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (15. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoek benetako autonomia izan dezaten Hezkuntza Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Departamentuak Agoiz berrindustrializatzeko hartu dituen neurriei buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Nafincok Agoizko Solano enpresaren kudeaketa eta salmentan izandako eginkizunari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Osasun kontseilariak Altsasuko Udalaren ordezkariak hartzeko duen zer jarrera duen jakitekoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroan lurreko telebista digitalaren eskuragarritasuna bultzatzeko hartuko dituen neurriei buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (18. or.).
- Galdera, etxebizitza hutsak alokatzeko poltsari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (18. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak uste duen Cortesko edateko uren araztegia funtzionamenduan jartzearekin uraren kalitatearen arazoa konponduko den, José Luis Izco Biarge jaunak egina (19. or.).
- Galdera, hautatutako ikastetxean matrikulatzerik izan ez duten ikasleen kopuruari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (20. or.).
- Galdera, “Kirol entitateentzako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu kontusailari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (20. or.).
- Galdera, indusketa arkeologikoetarako inbertsio planari eta horrek kultur garapenerako plan berrian izan duen garapenari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Barañain Auditorioa Fundazioaren garapenerako aurreikusten den dirulaguntzari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (22. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer asmo dituen Pio Barojaren museo etnografikoa jartzearen eta haren kokalekuaren inguruan, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (22. or.).
- Galdera, N-121 errepidea hobetzeko lanak iragartzeko panelak hauteskundeak baino astebete lehenago jarri eta lanak bi hilabete beranduago hasi izanari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (23. or.).
- Galdera, enplegu-erregulazioko espedienteak onesteko baldintza objektiboari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Nafarroan automobilen sektorerako arau-esparru bat ezartzeko beharrari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (24. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Agoitzen industria proiektu berriak sustatzeko eta/edo instalatzen laguntzeko konpromiso politikoa bere gain hartzeko asmorik duen, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Iruñeko Udaltzaingoaren ibilgailuen eta uniformeen irudi berriari eta hori Nafarroako udaltzaingoaren antolaketari buruzko esparru erregelamenduaren araberkoa izateari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (26. or.).
- Galdera, jakiteko zein arrazoi direla-eta sartu den Nafarroako Gobernuak webgunean Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen bilatzaile bat, ebazpenik ez egoteagatik ez dabilena, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (28. or.).
- Galdera, joan den martxoaren 17ko Iruñeko manifestazioaren deialdiak eta haren antolamenduak eta abarrek sorturiko dituen gastuei buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (29. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdiak, hautapoben eta merezimendu-balioespenaren bidez teknikarien kidegoaren baitan euskarazko teknikari itzultzaileen bi zerrenda osatzekoak, bata parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta bestea aldi baterako administrazio-kontratazioetarako ([30. or.](#)).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernua garatzen ari den eta garatu nahi duen politika ekonomikoari eta “Garapen ekonomikoaren eredu berriari” buruzkoa.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernua garatzen ari den eta garatu nahi duen politika ekonomikoari eta “Garapen ekonomikoaren eredu berriari” buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, idazki honen bidez, Legebiltzarreko Erregelamenduekin bat, politika orokorrari buruzko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin, Gobernuaren politika ekonomikoa dela-eta, zeinak, itxuraz, oinarri baitu “Nafarroarentzako eredu ekonomiko berria” lehendakariorde Miranda jaunak iragarri zuenez.

Zioak:

Ekonomiaren gorabeherak kezka iturri izan ohi dira herritarrentzat, baita gauzak ondo doazelarik ere. Azken urteotan, ratio nagusiek bilakaera ona izan dute hala Nafarroan nola Espainia osoan. Espainiako Gobernuak gauzatu duen politikak hazkunde eta oparotasun handiak ahalbidetu ditu, eta Gizarte Segurantzaren kotizatzaile kopuru inoiz baino handiagoa.

Egia bada ere errealitate eta etorkizun ekonomikoa Estatuko nahiz Europako eta nazioarteko testuinguruaren baitan daudela, egia da, halaber, foru erkidegoak hamarkadak daramatzala eskualdeko politika industrialia gauzatzen, eta, modu orokorragoan, eskualdeko politika ekonomikoa gauzatzen, eta horrek berez erakutsi duena da dauzkagun gaitasun instituzionalek eragina dutela hazkunde eta oparotasun ekonomikoaren bilakaeran. Foru erakundeek eragin dute bulkada eta modernizatze hori, eta, horretarako, oinarri izan dituzte gure kokagune geografiko interesgarria, gure autogobernua, gure Ogasun propioaren politika fiskala, ikastetxeek egin duten lana eta, era berean, ekintzaileen eta oro har langileen ahalegina eta adorea bera. Horrela, bidezkoa da aipatzea laurogeiko hamarkadako Nafarroako gobernua berritzaileak izan zirela eta gobernu haiek epe ertain eta luzera egin zituztela aurreikuspenak. Bulkada hura, geroztik, administratu bai, baina ordutik ez da berritu halako hedaduraz eta bizitasunez.

Egun, aitortzen da, oro har, administrazio autonomikoek eta are toki administrazioek zeregin garrantzitsua dutela ekonomiaren arloan, eta orain dela urte asko pentsaezinak ziren aukera eta jarduera berriak dituztela.

Testuingurua hori izanda ere, onuragarria hasiera batean, ez du balio bertan gozo egiteak, eta hori da gaur egungo foru gobernua duen egoeraren, sentipenaren eta jarreraren ezaugarria. Ez da nahikoa pentsatzea aitzindariak izan ginela zenbait sektoretan, edo urtetan indarra izan dugula ohiko enpresa jardueretan. Aitzitik, ekonomiaren arloko etorkizuneko jardura politikoak aurrez pentsatu behar dira, baita Nafarroako erakundeen eremutik ere.

Horregatik eta beste arrazoi batzuegatik, sozialistok interesez jaso genuen lehendakariorde

Miranda jaunak irailaren 18an egin zuen iragarpena; alegia, "eredu ekonomiko berria behar dela Nafarroarentzat, oinarri hartuz hezkuntza, teknologia eta 'kalitatezko enplegua' sortuko duten enpresa berritzaileak, lehiakorrak eta esportatzeko 'beldurrik' izanen ez dutenak".

Hala ere, kontseilari horrek berak Parlamentuko batzordean hilaren 25ean egin zuen agerraldia- ren ondotik, hau da, soilik zazpi egun geroago, ikusmina zapuztu egin zitzaigun. Izan ere, atera genuen ondorioa izan zen ezen asmoen atzean, zehaztapenak ez ezik, garapen ekonomikoaren eredu berri hori gorpuztu dezaketen ildo estrategi-koak ere falta direla.

Gutxi eta gaizki adierazi zen, eta hortik probetxuzkorik atera daitekeen bakarra, zirriborro soil gisa, hazkundearen sektore posible batzuen aipamena da. Ezin dugu konfiantzarik izan garapen iraunkorreko benetako programarik gauzatu ahal izanen dugunik, azken foru hauteskundeetako kanpainen PSN-PSOEek proposatzen zuen moduan. Laburbilduz, egunkarietarako titulu ona bai

agian, baina kazetaritzako tituluekin soilik ez dugu lortuko denboran aurrera egitea eta Nafarroak etorkizunean garapen ekonomiko hobea izan dezan animatzea, bultzatzea eta laguntzea.

Horregatik, eta gure politika ekonomikoaren diseinua eta etorkizuneko gauzatzea garrantzitsua denez eta modu orokorrean eragiten dienez foru erkidegoan garatuko diren politika guztiei, politika ekonomikoari buruzko jabeldura aurkeztu diogu foru exekutiboari.

Jabelduraren testua:

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, gauzatzen ari den eta hurrengo urteetan gauzatzeko asmoa duen politika ekonomikoari buruz, bai eta Gobernuak "garapen ekonomikoaren eredu berria" deitutakoaren ezaugarriei, norainokoari eta edukiei buruz ere.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Jabeldura, Toki administrazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Toki administrazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamendua- ren 179. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, toki administrazioaren arloko politika orokorrari buruzko jabeldura hau hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea eskatzen du:

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egoki deritzo une honetan Nafarroako Parlamentuan Nafarroako toki administrazioaren egoerari buruzko eztabaida bati jabeldura bidez ekiteari. Eztabaida horretan kontuan hartu beharko lirakeke, gutxienez ere, honako gai hauek:

a) Zer iritzi duen Nafarroako Gobernuak Nafarroako udal-egitura eta -mapari buruz, toki entitateen eskumenei buruz eta horiei dagokien finantzaketari buruz.

b) Gobernuaren iritzi, bat al datoz toki entitateek ematen dituzten zerbitzuak eta herritarren eskariak?

c) Zer tamaina izan behar dute, biztanle kopuruari dagokionez, udalez gaindiko toki entitate eredugarriek, herritarrek eskatzen dituzten zerbitzuak egoki eman ahal izateko?

d) Zehaztua al du Nafarroako Gobernuak zein litzatekeen, dituen aurreikuspenen arabera, toki entitateen mapa egokia, jendaurrean aurkeztu ahal izateko eta eztabaida zabal bati ekiteko toki entitateekin, Nafarroako Udal eta Kontzejuen

Federazioarekin eta Parlamentuan ordezkaturako indar politikoekin?

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari interesatzen zaio Nafarroako Gobernuaren iritziak eta

aurreikuspenak ahalik eta zehaztasun handienarekin ezagutzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Jabeldura, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak sinaturiko hirigintza-hitzarmenak betetzeari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkezturiko jabeldura, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak sinaturiko hirigintza-hitzarmenak betetzeari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marco-tegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Txentxo Jiménez Hervás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 179. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Departamentu horrek sinaturiko hirigintza-hitzarmenak betetzeari buruzko jabeldura.

Iruñean, 2007ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Jabeldura, Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak errekurritutako 39/2006 Legearen zenbait alderdi konpontzeko negoziaketan nondik norakoei buruzkoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak errekurritutako 39/2006 Legearen zenbait alderdi konpontzeko negoziaketan nondik norakoei buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 179. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak errekurritutako abenduaren 14ko 39/2006 Legearen zenbait alderdi konpontzeko negoziaketan nondik norakoei buruzkoa.

Iruñean, 2007ko urriaren 10ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Jabeldura, 2007ko martxoan eta apirilean izandako uholdeek kaltetutakoen aldeko neurriak ezartzen dituen 16/2007 Foru Legea betetzeari buruzkoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, 2007ko martxoan eta apirilean izandako uholdeek kaltetutakoen aldeko neurriak ezartzen dituen 16/2007 Foru Legea betetzeari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Txentxo Jiménez Hervás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 179. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Nafarroako Foru Komunitatean 2007ko martxoan eta apirilean izandako uholdeek kaltetutakoen aldeko neurriak ezartzen dituen maiatzaren 16/2007 Foru Legearen eta Gobernuak emandako dekretuen eta foru aginduen betetzeari buruzkoa.

Iruñean, 2007ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den prozedura berriro abiaraz dezan Ezkabako Gotorlekua eta bere lurrak eskuratzeko, Defentsa Ministerioaren lagapenaren bidez.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den prozedura berriro abiaraz dezan Ezkabako Gotorlekua eta bere lurrak eskuratzeko, Defentsa Ministerioaren lagapenaren bidez

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Diputatuen Kongresuko Defentsa Batzordeak, 2006ko apirilaren 25ean eginiko bileran, Nafarroa Bai alderdiko Uxue Barkos diputatuak aurkeztutako legez besteko proposamen bat onetsi zuen, Ezkaba mendiaren gailurrean dagoen Alfontso XII.aren gotorlekua Nafarroako Gobernuari lagatzeari buruzkoa. Proposamenean azaltzen da beharrezkoa dela administrazio zentralaren eta foru administrazioaren arteko elkarrizketei berrekitzea, aipatu gotorlekua lagatzea ahalbidetuko duen hitzarmen bat sinatze aldera, instalazioa aisiarako eta xede sozialetarako erabiltzen lagunduko duen proiektu integral bat, Ezkabako espetxeko biktima guztiak omentzeko balioko duena, garatu ahal izateko.

Horrekin lotuta, inguruko udalerriek askotan agertu dute lagapen horrekiko interesa. Antsoain, Berriozar eta Berriobeitiko udalek xede horri begira egin dute lan eta administrazio desberdinek

osatatuko lan-mahai baten oinarriak ezartzeko asmoa adierazi dute. Lan-mahai hori beste sektore batzuen –soziala, ekonomikoa, ingurumenekoa eta abar– parte-hartzeari irekita egonen da eta ingurune horretarako dauden aukerak zehaztea izanen du helburu.

Armadak 1987. urtean utzi zuen Ezkaba mendiaren gailurrean dagoen Alfontso XII.a gotorlekua, eta 1991n azken zaintza-taldeak erretiratu zituen. Harrezkero hutsik eta abandonaturik dago, horrek eremu horretara joaten den jendearentzat –eta asko da– dakarren arriskuarekin. Gainera, 2001eko azaroan, Ministro Kontseiluak kultur intereseko ondasuntzat deklaratu zuen Alfontso XII.a gotorlekua, monumentu kategoriarekin, eta, are gehiago, gotorlekua lur horien desafekzioaren aurreko fasean dago. Horrek nabarmentzen du ez dagoela inolako interesik instalazioa defentsarako erabiltzeko.

2007ko maiatzaren 4an, Uxue Barkosek aurkeztutako galdera idatzi bati emandako erantzunean, Defentsa Ministerioak lankidetzarako jarrera agertu eta akordio bat lortzeko gogoia erakutsi zuen, baina, bistakoa denez, orain arte ez da akordiorik erdietsi.

Bai gotorlekuak bai bere inguruko lursailek ukatu ezinezko interesa dute historia, ingurumena eta turismoaren aldetik. 180.000 metro koadroko eraikina, gotorleku militar izateko 1878tik 1919ra bitartean eraiki zena, ingeniari-tza militarreko obra nabarmena da. Halaber, 615.000 metro koadro inguruko lursailak Iruñerriko gune garrantzitsuenetako bat osatzen dute ingurumenaren aldetik, eta beharrezkoa da hura mantentzea eta ondo zain- tzea.

Alfontso XII.a gotorlekua ez zen inoiz erabili zeukan helbururako, eta espetxe gisa erabili zuten 1934tik 1945era bitartean. Urte horietan, 4.900 preso inguru hartu zituen eta 800 inguru gaixotasunak zirela-eta hil ziren edo erailak izan ziren. Horietatik askok desagerturik jarraitzen dute oraindik mendi-bizkarretan.

Hori dela eta, beharrezkoa da uztartzea ingurumenaren berreskuratzea, ingurumenaren eta paisaiaren arloan, eta eraikin horrek nafarron oroimen kolektiborako duen esanahia; izan ere,

erkidego honek gerra zibilaren eta frankismoaren garaian bizi behar izan zuen dramaren ikurra da.

Nafarroa Bai parlamentu-taldearen ustez, premiazkoa da mendi horren berreskuratzea abian jartzea, naturarentzat, herritarrentzat eta oroimen historikoarentzat.

Hori dela eta, honako hau erabakitzea proposatzen dugu:

1. Gehienez ere hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuari eskatzea beharrezkoa den prozedura berriro abiaraz dezan, Ezkabako Gotorlekua eta bere lurak eskuratzeko, Defentsa Ministerioaren lagapenaren bidez.

2. Nafarroako Gobernuari eskatzea mahai bat osa dezan, Ezkaba mendiko eta Alfontso XII.a gotorlekuko inguruarentzat izan daitezkeen aukurak aztertzeko. Mahai horrek gizartearen eta ingurumenaren arloko eragileez eta udalez osatua egon beharko luke, eta kontuan hartu beharko lirarteke, halaber, Nafarroan gerra zibileko oroimen historikoa gordetzearen alde eta, zehazki, eremu horren oroimen tragikoa gordetzearen alde lan egiten duten elkarteak.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Mozioa. Horren bidez, RTVE korporazioaren administrazio kontseilua eta Estatuko Gobernu premiatzen dira eskualdeari egokitutako edukiak dituen programazioa eskaintzeko gai den irrati eta telebista lurralde-egitura bat berma dezaten Nafarroan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: RTVE korporazioaren administrazio kontseilua eta Estatuko Gobernu premiatzen dira eskualdeari egokitutako edukiak dituen programazioa eskaintzeko gai den irrati eta telebista lurralde-egitura bat berma dezaten Nafarroan

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa

aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak:

RTVE ente publikoak lurraldeetako zentroetan murrizketa zorrotza egiteko erabakia hartu zuen, bereziki TVEk Nafarroan duen lurralde-zentroan.

Praktikan, murrizketa horrek dakar telebista publikoaren presentzia Nafarroan ahalik eta gehiena murriztea. Zehazki, ekoizpena egunean egiten diren bi albistegietako hogeita minutu eskasetara mugatuko litzateke. Nafarroako berariazko ekoizpen eta programazioarekin zerikusia duen oro desagertu egingen da lurralde-zentroetik; halaber, Nafarroako igorpen-leiho batzuk ere deuseztatuko dira.

Erabaki horrek zentro horretako langileen plantillaren murrizketa garrantzitsua dakar berarekin; izan ere, bertan lan egiten zutenen kopurua erdia baino gutxiagora murriztuko da.

Kontuan hartuta RTVE dela gure erkidegoko hedabide publiko bakarra eta informazio publikoa herritarren eskubidea dela, parlamentu-talde honen ustez beharrezkoa da Nafarroako Parlamentuak informazio publikoa izateko eskubidearen alde egitea, gure erkidegoan zerbitzu hori berma dadin defendatzea eta zentro honetan iza-

nen den murrizketak kaltetutako langileen alde egitea.

Autonomia erkidegoen estatuaren eginkizuna deenez gero zerbitzu publikoa eskaintzea eta Estatuaren titulartasuneko irratitari eta telebistari buruzko ekainaren 5eko 17/2006 Legea garatzeko eta betetzeko, erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak RTVE korporazioaren administrazio kontseilua eta Estatuako Gobernua premiatzen ditu eskualdeari egokitutako edukiak dituen programazioa eskaintzeko gai den irradi eta telebista lurralde-egitura bat berma dezaten Nafarroan.

1.- Nafarroako herritarrei eskualdeari egokitutako edukiak dituen programazioa eskain diezaien, Nafarroako ondare artistiko, historiko eta naturalaren ezagutza sustatuko duena.

2.- Nafarroako gertakizun garrantzitsuei estaldura ematea, programazio bereziaren bidez, esku-alderako deskonexioak ahalbidetuz.

3.- Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan eginiko programazioa sustatzea, hau da, gaztelaniaz eta euskaraz.

4.- Informazio objektibo, egiazko eta askotarikoa bermatzea, erabat egokituko zaiona independentzia profesionalaren irizpideari eta Nafarroako aniztasun politiko, sozial eta ideologikoari.

5.- Berariazko edukiak ekartzea programazio nazionalari eta RTVEren nazioarteko kateei, lurraldearen kohesioa sustatzeko eta Nafarroa kanpoan ezagutarazteko, eta arreta berezia eskaintzea atzerrian bizi diren edo dauden nafarrei.

Iruñean, 2007ko urriaren 9an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den diru kopurua jar dezan Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziaturaren 5. mailarako beka edo laguntzari aurre egiteko 2007-2008 ikasturtean.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den diru kopurua jar dezan Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziaturaren 5. mailarako beka edo laguntzari aurre egiteko 2007-2008 ikasturtean

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

2006/2007 ikasturtean, Nafarroako Gobernua-ren Hezkuntza Departamentuak ikasketa-laguntza bat ukatu die Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziaturaren 5. mailako ikasleei, ikasketa horiek Hezkuntza Ministerioak homologatu gabeko titulu bati dagozkiolako.

Behar zirenak argituta, Departamentuak erantzun zuen karrera horrek gainerako ikasketetarako ezarritako iraupena gainditzen duela, eta, beraz, bosgarren ikasturteari ez zegokiola laguntzarik.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak ikasketa horiek aukeran jarri baldin baditu ikasleak hobeki prestatzeko eta unibertsitate-titulu bikoitzak berekin daraman prestigioa lortzeko, ez da ulergarria Gobernuak, Hezkuntza Departamentuaren bidez, laguntzarik ez ezartzea karrera horrek irauten duen urte guztietarako, aurretik ikasturtea gainditu bada.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoa den diru kopurua jar dezan eskaera honi aurre egiteko, eta, hala bada, 2007/2008 ikasturterako beka edo laguntza onar dezan Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziaturaren 5. mailarako.

Iruñean, 2007ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du txirotasunaren aurkako mobilizazio-astea ospatzearekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2007ko urriaren 15ean egindako bileran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du txirotasunaren aurkako mobilizazio-astea ospatzearekin, zeina “Txirotasunaren aurka matxina zaituz” lelopean urriaren 15etik 21era arte gauzatuko baita.

2. Nafarroako Parlamentua Milurtekoaren Garapen Helburuei atxikitzen zaie, eta bere esku-menaren esparruan, helburu horiek betetzeko konpromisoa hartzen du.”

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Adierazpen instituzionala, atzo Galdakaon eginiko atentatua gaitzestekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2007ko urriaren 10ean egindako bileran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Berriro ere, ETA talde terroristak atentatu bat egin du; kasu honetan, Bizkaiko Galdakaoko Alderdi Sozialistako zinegotzi baten eskoltaren aurka. Bere ibilgailuan jarritako lehergailu bat aktibatuz, zauri larriak eragin dizkio, eta kaltetuaren bitzta bera ere egiazko arriskuan ipini du.

Horrenbestez, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak honako hau erabaki dute:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du erabat gaitzesten duela ETA talde terroristak atzo Galdakaon Gabriel Ginés jaunaren aurka eginiko atentatua. Ginés jauna bertako zinegotzi sozialista Juan Carlos Domingo jaunaren eskolta da, eta atentatuan larriki zauritua gertatzeaz gain, bere bizia bera ere egiazko arriskuan jarri da.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa helarazi nahi dizkie ekin-tza terroristak hori jasan duen pertsonari eta bere familiartekoei, eta, orobat, kargu publikoetan dihardutenen eta herritar guztien segurtasuna bermatzeko lanean gaur egungo egoeran, ETAREN mehatxuak aintzat harturik, aritzen diren segurtasun-arloko langileei, hala esparru publikokoei nola pribatukoei.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuak ETARI exijitzen dio atentatuak egiteari utz diezaion. ETAK aurrez aurre dauzka, Estatu demokratikoko erakunde guztiak ez ezik, herritar gehien-gehienak ere, behin eta berriro gaitzetsi dutenak ETAREN existentzia, gizarte guztiari mehatxu egiten dion eta partaidetza politiko nahiz eztabaida publikorako bide demokratikoak mespretxatzen dituen talde terroristak izateagatik. Azken finean, ukatu eta oztopatu egiten du herritarrek beren borondate askea gauzatzea.

Laugarrena.- Nafarroako Parlamentuak berresten du uste osoa duela demokratek terroristen aurka bat eginez lortu ahalko dela haiek armak uztea, eta bategite horren bitartez gailenduko direla Zuzenbide Estatuaren balioak eta guztion bizia eta askatasuna bermatzen duten gizarte demokratiko baten oinarriak.

Bosgarrena.- Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du, halaber, inolako salbuespenik gabe defendatzeko giza eskubideak eta, horien artean, norbanakoaren nahiz giza taldeen eskubide zibil eta politikoak, Espainiako 1978ko Konstituzioan eta nazioarteko akordioetan aldarrikatuak.”

Iruñean, 2007ko urriaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

F saila:
GALDERAK

Galdera, gaur egun Sarrigurenen hezkuntzako dotaziorik ez egotearen arrazoiei buruzkoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, gaur egun Sarrigurenen hezkuntzako dotaziorik ez egotearen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari M^a Luisa Mangado Cortés andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez dago gaur egun hezkuntza dotaziorik (0-3 urteko haurrentzako eskolak, haur hezkuntza eta lehen hezkuntza) Sarrigurenen? Zein epe aurreikusi ditu Hezkuntza Departamentuak Sarrigurenen ikastetxeren bat eraikitzen hasteko eta bukatzeko?

Iruñean, 2007ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: M.^a Luisa Mangado Cortés

Galdera, 1998. urtean Nafarroako Gobernuak eta Eguesibarko Udalak zenbait dotazio sustatzeko sinatu zuten hitzarmenari buruzkoa, zeinen bidez zehazki osasunaren arloan kontsultategi mediko eta osasun etxe bat sortzeko konpromisoa ezarri baitzen.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, 1998. urtean Nafarroako Gobernuak eta Eguesibarko Udalak zenbait dotazio sustatzeko sinatu zuten hitzarmenari buruzkoa, zeinen bidez zehazki osasunaren arloan kontsultategi mediko eta

osasun etxe bat sortzeko konpromisoa ezarri baitzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

1998an Nafarroako Gobernuak eta Eguesibarreko Udalak sinaturiko akordioak zenbait dotazio egiteko konpromisoa ezarri zuen. Zehazki, osasunaren arloan, Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzen zuen kontsultategi baten % 20 eta osasun

etxearen % 80 ordaintzeko. Argi dago hitzarmen hori ez dela bete.

Hori dela-eta, izenpetzen duen parlamentariak honako galdera egiten du, ahoz erantzuteko:

Zein da aipatu hitzarmenaren egungo egoera? Zein epe dago eta zein kontusailen kargura ordainduko da % 60, 1998an onetsitakoa gauzatzeko?

Iruñean, 2007ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, iragan urriaren 9an Luis Javier Fortún Pérez de Ciriza jaunak emandako hitzaldiaren iragarkiak zergatik idatzi ziren gaztelera hutsez jakitekoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko iragan urriaren 9an Luis Javier Fortún Pérez de Ciriza jaunak emandako hitzaldiaren iragarkiak zergatik idatzi ziren gaztelera hutsez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, "Amairuko gazteluaren konkista"ri buruzko hitzaldi bat dela-eta, ondoko Galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion.

Urriaren 9an Luis Javier Fortún Pérez de Ciriza jaunak hitzaldi bat eman zuen Nafarroako Artxibategi Nagusian, Amairuko gazteluaren konkistaz. Hitzaldia iragartzeko egunkarietan iragarkiak ikusi genituen:

– Zergatik egin dira iragarki horiek gaztelera hutsez?

Iruñean, 2007ko urriaren 9a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko Gobernuko lehendakaria ados dagoen legegintzaldi honetan Hezkuntza Departamentuko aurrekontua igo eta Nafarroako BPGaren % 6ra hurbiltzearekin.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Gobernuko lehendakaria ados dagoen legegintzaldi honetan Hezkuntza Departamentuko aurrekontua igo eta Nafarroako BPGaren % 6ra hurbiltzearekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Errege-

lamenduan xedatutakoaren arabera, Hezkuntza Departamentuari Nafarroako Gobernuak ematen dition aurrekontuak direla-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuko Presidenteak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.

Duela guti Nafarroako Gobernuko Presidenteak "Saviólogos" izeneko biltzarrean esku hartu zuen. Bertan 40tik gora adituk beren iritziak plazaratu zituzten etorkizun hurbilaz, beti ere, arlo ekonomiko, juridiko eta soziala aintzat hartuz.

Bertan adierazi zenez, hezkuntzan ematen den inbertsioa hagitz garrantzitsutzat jo zen hurrengo belaunaldien aurrerakuntza lortzeko. Han esan zena aintzat hartuta:

Presidente jauna ados al dago Hezkuntzari eman beharreko aurrekontuak igotzearekin eta Nafarroako SPGren %6ra hurbiltzearekin oraingo legegintzaldian?

Iruñean, 2007ko urriaren 9a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, ikastetxe publikoek benetako autonomia izan dezaten Hezkuntza Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, ikastetxe publikoek benetako autonomia izan dezaten Hezkuntza Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Araudian xedatutakoaren arabera, Ikastetxeei eman beharreko autonomia dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.

Zer neurri hartuko ditu Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Ikastetxe Publikoek benetako autonomia izan dezaten?

Iruñean, 2007ko urriaren 9a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Departamentuak Agoiz berrindustrializatzeko hartu dituen neurriei buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako galdera, Departamentuak Agoiz berrindustrializatzeko hartu dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Txentxo Jiménez Hervás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein urrats egin ditu departamentuak Agoiz berrindustrializatzeko, besteak beste enpresa ixteko enplegu-erregulazioko espedientea zabalik duen eta jarduera eteteko egoeran dagoen Solano enpresaren egungo plantillari lana emateko?

Iruñean, 2007ko urriaren 10ean.

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, Nafincok Agoizko Solano enpresaren kudeaketa eta salmentan izandako eginkizunari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako galdera, Nafincok Agoizko Solano enpresaren kudeaketa eta salmentan izandako eginkizunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer lan egin du Nafincok Agoizko Solano enpresaren kudeaketan eta salmentan?

Iruñean, 2007ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, Osasun kontseilariak Altsasuko Udalaren ordezkariak hartzeko duen zer jarrera duen jakitekoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Osasun kontseilariak Altsasuko Udalaren ordezkariak hartzeko duen zer jarrera duen jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Osasun kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zioen azalpena:

Altsasuko Udalaren Osoko Bilkurak, otsailean, gutxi gorabehera, eskari bat helarazi zion kontseilariari elkarrizketa pertsonal bat izateko. Gaur arte, ez du erantzunik jaso.

Elkarrizketa hori eskatzeko arrazoia zen Altsasuko osasun zentroan gero eta zerbitzu okerragoa ematen zela. Ukitutakoen esanetan, luze itxaron beharra dago laguntza jasotzeko, bai erakusmahaiari hitzordua eskatzeko, bai familiako sendagilearekin bisita eduki ahal izateko. Familiako sendagilearen kontsultak astebete bitarteko atzerapenarekin ematen dira.

Egoera horren aurrean haxe da gure galdera:

Prest al dago kontseilari andrea Altsasuko Udaleko ordezkariari harrera egiteko?

Noiz du hori egiteko asmoa?

Zergatik ez ditu lehenago hartu?

Iruñean, 2007ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Nafarroan lurreko telebista digitalaren eskuragarritasuna bultzatzeko hartuko dituen neurriei buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan lurreko telebista digitalaren eskuragarritasuna bultzatzeko hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena:

Legegintzaldi honetan seinale analogikoa itzailiko da, eta lurreko telebista digitala, Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiaren planak eta aurreikuspenak gorabehera, oso gutxi sartua dago Nafarroako etxeetan, Espainiako gainerako lekuekin alderatzen badugu. Horrenbestez, honako galderak aurkeztu ditut idatziz erantzuteko:

1.- Zer neurri eta jarduera ditu aurreikusiak Gobernuak, eta zer aurrekontu, plangintza eta exekuzio-epe ditu, nafarrek duten lurreko telebista digitalaren eskuragarritasuna bultzatzeko?

2.- Zer akordio edo negoziaketa, halakorik baldin badago edo izateko asmorik badago, daude edo aurreikusi dira seinale analogikoaren itzalketak ukituko dituen sektoreekin, hau da, Instalatzailen Federazioarekin, Impulsa elkartearekin, Kontsumitzaileen elkarteekin, merkatarien elkarteekin, higiezinak elkarte eta ordezkariekin, zerikusia duten lanbide-elkargoekin eta sustatzaile eta erakitzaileen elkarteekin?

3.- Izan al da kudeaketarik edo kontakturik, ETBrekin dagoen hitzarmena egokitzeko seinale analogikoa itzaltzeak eraginen duen egoera berri-
ra?

Iruñean, 2007ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, etxebizitza hutsak alokatzeko poltsari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, etxebizitza hutsak alokatzeko poltsari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Etxebizitza hutsak alokatzeko poltsari buruzko galdera.

1. Zer urrats egingen ditu Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Vinsaren alokairu-poltsaren bidez alokatzen diren etxebizitza hutsen kopurua handitzeko?

2. Zer tresna erabiliko ditu departamentuak etxebizitza hutsak kuantifikatzeko?

Iruñean, 2007ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak uste duen Cortesko edateko uren araztegia funtzionamenduan jartzearekin uraren kalitatearen arazoa konponduko den.

JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Luis Izco Biarge jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak uste duen Cortesko edateko uren araztegia funtzionamenduan jartzearekin uraren kalitatearen arazoa konponduko den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zioen azalpena:

Azkenaldian, arazoak detektatu dira Cortesen giza kontsumorako uraren kalitatea dela eta. Antza denez, trihalometanoak azaltzearen ondorioz sortzen dira arazo horiek.

Herri horretan araztegi berri bat eraikitzen ari da, eta Nafarroako Gobernuak proiektu hori berrikusi eta diruz lagundu du.

Horregatik guztiagatik, bidezkoa dirudi ondoko galdera egiteak:

Nafarroako Gobernuak uste al du Cortesko edateko uraren araztegia funtzionamenduan jartzearekin uraren kalitatearen arazoa behin betiko konponduko dela?

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, hautatutako ikastetxean matrikulatzerik izan ez duten ikasleen kopuruari buruzkoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, hautatutako ikastetxean matrikulatzerik izan ez duten ikasleen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foro parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Hezkuntza departamentuari, idatziz erantzun diezazkion:

Ikasleen ikastetxeetan eskolaratze epea amaitu berri da.

Zoritxarrez, hautatutako ikastetxeetan matrikulatzerik izan ez duten eta, ondorioz, bizi diren ingurutik kanpora joan beharko diren ikasleei buruzko datuak ezagutu ditugu.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoak jakin nahi ditu:

Lehena.- Hautatutako ikastetxean matrikulatzerik izan ez duten ikasleen kopurua, hizkuntza ereduaren, udalerraren eta auzoaren arabera zehazturik.

Bigarrena.- Hautatutako ikastetxean lekurik ez izateagatik bizi diren ingurutik kanpora joan behar izan diren ikasleen kopurua, hizkuntza ereduaren, udalerraren eta auzoaren arabera zehazturik.

Hirugarrena.- Hizkuntza eredu zehatz bat hautatzeagatik bizi diren ingurutik kanpora joan behar duten lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleen kopurua, udalerraren, hizkuntza ereduaren eta ikastetxearen arabera zehazturik.

Laugarrena.- 2007-2008. ikasturtean Nafarroako ikastetxe guztietako matrikulazio datuak, udalerraren, hizkuntza ereduaren eta ikastetxearen arabera zehazturik.

Iruñean, 2007ko urriaren 9a

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, “Kirol entitateentzako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu kontusailari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, “Kirol entitateentzako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

2007ko aurrekontuetan, "Kirola eta gazteria sustatzea" programaren barruan, "Kirol entitateentzako laguntzak" izeneko kontusaila dago jasota.

Parlamentari honek hau jakin nahi du:

– 95110-940002-4819-336102 proiektuaren betetze maila.

– Kontusail horretatik kirol entitateetara eginiko kontabilitate mugimendu guztiak, haietako bakoitzari helarazitako kopuruak zehaztuta.

Iruñean, 2007ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, indusketa arkeologikoetarako inbertsio planari eta horrek kultur garapenerako plan berrian izan duen garapenari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, indusketa arkeologikoetarako inbertsio planari eta horrek kultur garapenerako plan berrian izan duen garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek hau jakin nahi du:

– Zein da indusketa arkeologikoetarako inbertsio plana eta horrek kultur garapenerako plan berrian izan duen garapena?

Iruñean, 2007ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Barañain Auditorioa Fundazioaren garapenerako aurreikusten den dirulaguntzari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Barañain Auditorioa Fundazioaren garapenerako aurreikusten den dirulaguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek hau jakin nahi du:

– Zer dirulaguntza aurreikusten da Barañain Auditorioa Fundazioaren garapenerako?

Iruñean, 2007ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer asmo dituen Pío Barojaren museo etnografikoa jartzearen eta haren kokalekuaren inguruan.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer asmo dituen Pío Barojaren museo etnografikoa jartzearen eta haren kokalekuaren inguruan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek hau jakin nahi du:

– Zer asmo ditu Nafarroako Gobernuak Pío Barojaren museo etnografikoa jartzearen eta haren kokalekuaren inguruan?

Iruñean, 2007ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, N-121 errepidea hobetzeko lanak iragartzeko panelak hauteskondeak baino astebete lehenago jarri eta lanak bi hilabete beranduago hasi izanari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, N-121 errepidea hobetzeko lanak iragartzeko panelak hauteskondeak baino astebete lehenago jarri eta lanak bi hilabete beranduago hasi izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Hauteskundearen aurreko astean (maiatzaren 27an), Nafarroako Gobernuak panelak jarri zituen iragartzeko hastekoak zirela N-121-A errepidea hobetzeko lanak igantzi eta Endarlatsa artean.

Bi hilabete itxaron behar izan genuen obren atariko faseak abia zitezen, eta horretarako erabili ziren baliabide tekniko eta giza baliabideak tamai-

na horretako obra batek behar dituenak baino askoz ere txikiagoak izan ziren. Atariko fase horretan egonda ere, eta, errepidearen mozketei dagokienez, eraikuntza-proiektuaren aurreikuspenik baikorrenak zapuztuz, mozketak horiek ohikoegiak dira inondik ere.

Hori dela-eta, hau jakin nahi dut:

1.- Nafarroako Gobernuak aurreikusita al zuen obrak ez hastea hauteskondeak pasa eta bi hilabete baino gehiago iragan arte, nahiz eta informazio-panelak hauteskundearen aurreko astean jarri?

2.- Ba al du Nafarroako Gobernuak plan zehatzik obra horiek erritmo normal batean egiteko, lanen kalitatea urritu gabe exekuzio-epeei egokitzeko?

3.- Normala iruditzen al zaio Nafarroako Gobernuari gaur egungo bidean egiten ari diren zirkulazio-etenen kalitatea? Ba al du Nafarroako Gobernuak plan zehatzen bat eten eta erasan horiek mugatzeko, planifikatzeko eta haiei buruzko informazioa emateko?

4.- Lanek eragindako eragozpenak larriago egiten dira iragaitzako ibilgailu astunengatik (haien jatorria eta bolumena aipagai dugun muga honetatik kanpo daude). Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak neurriren bat trafiko hori gutxitzeko, eta, horrela, egungo N-121-A errepideko erabiltzaileengan dituen eraginak txikiagotzeko, bide horretatik joatea beste aukerarik ez baitute?

Iruñean, 2007ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, enplegu-erregulazioko espedienteak onesteko baldintza objektiboari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, enplegu-erregulazioko espedienteak onesteko baldintza objektiboari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERARENTESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Politika industrial, betiere, Nafarroaren etorkizun ekonomiko, laborala eta soziala zehazteko elementurik garrantzitsuenetakoa da.

Azken hilabete hauetan, erregulazio-espedienteak iragarri dira behin eta berriro Nafarroako enpresa anitzetan; izan ere, industria sektore helduetako enpresak edo alde egiteko prozesuan zeuden enpresak ziren. Kezkagarriak iruditzen zaizkigu espediente horiek.

Horietako bat Onena enpresaren enplegu-erregulazioko espedientearen iragarpena da –89 langileetatik 32 desagertzen dira–. Talde honek lortutako informaziotik ondoriozta daiteke azken urteetan emaitza ekonomiko positiboak erdietsi dituen enpresa bati buruz ari garela. Enpresak emandako arrazoiak –ekonomikoak, teknikoak eta produkzioari dagozkionak– oso ahulak dira.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Gogortu behar al ditu Nafarroako Gobernuak enplegu-erregulazioko espedienteak onesteko zorrotasuna eta baldintza objektiboak, hartara Nafarroako enpresa bideragarrietan lanpostuei ahal den babes handiena emateko?

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Nafarroan automobilen sektorerako arau-esparru bat ezartzeko beharrari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan automobilen sektorerako arau-esparru bat ezartzeko beharrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Politika industrial, betiere, Nafarroaren etorkizun ekonomiko, laborala eta soziala zehazteko elementurik garrantzitsuenetakoa da.

Azken hilabete hauetan, erregulazio-espeditenak iragarri dira behin eta berriro Nafarroako enpresa anitzetan; izan ere, industria sektore helduetako enpresak edo alde egiteko prozesuan zeuden enpresak ziren. Kezkagarriak iruditzen zaizkigu espeditente horiek.

Volkswagenek iragarri ondoren Sysmo enpresarekin zeukan hornidura-kontratua hutsalduko duela, 129 langile beren lanpostuak galtzeko zorian geratu dira. Nahiko ohikoa da automozioaren sektorean aipatutakoa bezalako arazoak sortzea, gure erkidegoan sektore horrek duen sendotasunari buruzko zalantzak sortzen dituzten enpresetan.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Egokia iruditzen al zaio Nafarroako Gobernuari Nafarroako automozioaren sektorea arautzeko marko bat ezartzea, gutxieneko baldintza batzuk bermatuko dituen, Nafarroako ekonomiarako kaltegarriak diren egoera horiek saihesteko? Hori dela-eta, zer ekimen edo neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2007ko irailaren 17an.

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Agoitzen industria proiektu berriak sustatzeko eta/edo instalatzen laguntzeko konpromiso politikoa bere gain hartzeko asmorik duen.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Agoitzen industria proiektu berriak sustatzeko eta/edo instalatzen laguntzeko konpromiso politikoa bere gain hartzeko asmorik duen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregela-

menduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Politika industrial, betiere, Nafarroaren etorkizun ekonomiko, laborala eta soziala zehazteko elementurik garrantzitsuenetakoa da.

Azken hilabete hauetan, erregulazio-espeditenak iragarri dira behin eta berriro Nafarroako enpresa anitzetan; izan ere, industria sektore helduetako enpresak edo alde egiteko prozesuan zeuden enpresak ziren. Kezkagarriak iruditzen zaizkigu espeditente horiek.

Agoizko Solano 2000 enpresa ixtearen iragarpenak kili-kolo utzi du bertako 58 langileren lan-etorkizuna, eta langile horiek, erabat babesgabe gelditu baitira, foru administrazioari eskatu diote konpromiso politikoa har dezan Agoizko industrialdean industria proiektu berriak sustatzeko eta/edo era aktiboan laguntzeko horiek industrialdean ezar daitezzen, eta erabil daitezela, horrela, Gobernuaren Nafinco enpresa publikoak industrialde horretan dituen industria-aktiboak.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Ba al du Nafarroako Gobernuak Agoizko industrialdean industria proiektu berriak sustatzeko eta/edo instalatzen laguntzeko konpromiso politikoa bere gain hartzeko asmorik?

Jarri al du abian Nafarroako Gobernuak kontakturik inongo enpresarekin industrialde horretan

jartzeko aukerari buruz? Zenbat kontaktu izan dira eta noiz? Zein izan da zuzemen horien emaitza?

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Iruñeko Udaltzaingoaren ibilgailuen eta uniformeen irudi berriari eta hori Nafarroako udaltzaingoaren antolaketari buruzko esparru erregelamenduaren arabera izateari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko Udaltzaingoaren ibilgailuen eta uniformeen irudi berriari eta hori Nafarroako udaltzaingoaren antolaketari buruzko esparru erregelamenduaren arabera izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten.

Iruñeko Udalak Iruñeko Udaltzaingoaren ibilgailuen irudi berria aurkezteko ekitaldi bat antolatzen martxoaren 26an. Hedabideek erakutsitako argazki eta grabazioetan ikusitakoaren arabera, irudi berri horrek ez du betetzen Nafarroako Udaltzaingoaren Antolaketari buruzko esparru erregelamenduko 12. eta 13. artikuluek xedaturikoa (erregelamendu hori onetsi zen urtarrilaren 25eko 8/1990 Foru Dekretuaren bitartez).

Izan ere, erregelamendu horrek ezartzen duenez, bai automobilek bai motorrek kolorez zuriak behar dute izan, eta luzetan zerrenda islatzaile bat izan behar dute, dama-jokoaren taulako ereduari jarraituz antolaturiko koadro urdin ilunekin osaturikoa, bai eta toki entitatearen armari ofiziala ere, "Udaltzaingoa" edo "Herrizaingoa" hitzarekin eta udalerraren edo toki entitatearen izenarekin batera. Erregelamendu horrek indarrean dirau, beste inolako arauk ez du ez espresuki ez isilbidez indargabetu, eta Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 18. artikuluko 1. idatz-zatiak ezarritako honakoaren babesa dauka (urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretua): "Nafarroako Gobernuak, Udaltzaingoa Koordinatzeko 23. artikuluan aipatzen den Batzordeak txostena eman ondoren, Udaltzaingo guztiak baliabide teknikoak, uniformeak, jarduteko irizpideak eta deontologia profesionalari dagokienez bateratzeko behar diren erregelamenduzko xedapenak ematen ahalko ditu. bai eta Nafarroako segurtasun publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legeko 15. artikulua ezarritakoarena ere: "1. Udaltzaingoaren koordinazio gaitan Nafarroako Gobernuari dagozkion eginkizunak segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen departamentuak beteko ditu. 2. Udaltzaingoaren koordinazioak honako eginkizun hauek bilduko ditu: a) Udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko erregelamenduek bete beharreko oinarriko arauak ezartzea. b) Udaltzaingoaren homogeneizazioa sustatzea honako arlo hauetan: baliabide teknikoak, uniformeak, defentsarako bitartekoak, ordainsariak eta kreditazio sistema".

Alabaina, Iruñeko Udaltzaingoaren ibilgailu berriek kolore urdin iluneko zati bat agertzen dute erdialdetik behera, ibilgailuek luzetan daukaten

zerrenda islatzailearen azpitik, eta faldoietan, berriz, kolore horiko beste zati bat.

Adierazitako eguneko egunkari batean esaten da Iruñeko Udaleko Hiritarren Babeserako zuzendariak erregelamendu horri dagokionez aitortu zuela ezen, arau indarduna izan arren, 1990ekoa dela eta “zaharkitua gelditu dela, batez ere segurtasun-irizpide berriei dagokienez” Horrez gain, esan omen zuten Iruñerako eredu berria Nafarroako Gobernuarekin adostua izan dela, Nafarroako poliziari buruzko lege berriaren izpirituaren arabera. Lege hori oraindik ere indarrean ez dagoen arren, horrelako bereizgarriak ipintzea baimendu eta aurreko araua indargabetuko omen du.

Begi-bistakoa da Nafarroako poliziei buruzko Foru Lege berrian, zeina Parlamentuak onetsia baina oraindik indarra hartu gabea baita, ez dela jasotzen gai honi buruzko inolako xedapen, ez artikuluetan ez eta haren izpirituan ere, herrizaingoen koordinazioa 8/2006 Foru Legean arautu baitzen. Foru lege berria mugatzen da polizia kidegoen antolaketa eta langileria buruzko kontuetara. Aurreko testu bategina indargabetzeak ez du esan nahi Nafarroako Udaltzaingoen Antolaketari buruzko esparru erregelamendua indargabetzen denik, araudi berriari kontra egiten ez dion orotan indarrean baitirau, lehenagotik emandako gainerako erregelamendu arauekin batera. Eta begi-bistakoa da araudi berriak, 8/2006 Foru Legeak eta Nafarroako poliziei buruzko Foru Lege berri izan denak ere, ez diola ezertan kontra egiten Nafarroako herrizaingoen ibilgailuei buruz esparru erregelamenduan jasotzen den arauketari.

Aipaturiko foru dekretuaren azken xedapenak Lehendakaritza eta Barne kontseilaria baimentzen du Nafarroako udaltzaingoen antolaketari buruzko

esparru erregelamenduaren garapen eta betearazpenerako behar diren xedapenak emateko.

Geroago, 2007ko abuztuaren 1ean, Iruñeko Udaleko Hiritarren Babeserako eta Mugikortasunerako zinegotzi delegatuak, alorreko zuzendariarekin eta Udaltzaingoko buruarekin, prentsaurreko batean, Udaltzaingoaren jantzi berriak aurkeztu zituen, ibilgailuen irudi berriarekin bat zetozenak. Kontrakoa adierazi zen arte, jantzi berriak ere ez datoz bat Nafarroako udaltzaingoen antolamendurako esparru-erregelamendurekin --urtarrilaren 25eko 8/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen delako esparru-erregelamendua--. Zehazki, nahiz eta 7.2.a) artikulua esan “Urdin ilun koloreko kapela zapalak, lauki zuriko damerodun banda perimetrala eta aurre-hegala charolais gisakoak direnak”, Iruñeko Udalak bere udaltzainei kapela zapal armatua ezarri die; nahiz eta 7.2.b) artikulua esan “Mahuka labur eta lepo idekiko atorra, urdin-argi kolorekoa, bizkarraldekoak urdin ilun kolorekoak dituela”, horren ordean udalak kolore urdin iluneko poloa, goiko aldean kolore hori islatzailea duena, ezarri du; eta abar.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu: Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalarekin adostu du Iruñeko Udaltzaingoaren ibilgailuen irudi berria? Zergatik ez dio eskatu urtarrilaren 25eko 8/1990 Foru Dekretuaren bitartez onetsiriko Nafarroako udaltzaingoen antolaketari buruzko esparru erregelamenduaren arabera izatea? Zer-nolako neurriak hartzeko asmoa du, aipaturiko erregelamenduko 7., 12. eta 13. artikuluek ezarritakoa bete- tze aldera?

Iruñean, 2007ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, jakiteko zein arrazoi direla-eta sartu den Nafarroako Gobernuko webgunean Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen bilatzaile bat, ebazpenik ez egoteagatik ez dabilena.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zein arrazoi direla-eta sartu den Nafarroako Gobernuko webgunean Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen bilatzaile bat, ebazpenik ez egoteagatik ez dabilena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten.

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizi eta Barne Batzordean 2003ko irailaren 18an egin zuen agerraldian, Lehendakaritza, Justizi eta Barne kontseilariak legegintza honetan zehar departamentu horrek garatu behar zituen ekimenen berri eman zuen. Beste proiektu askoren artean, eta Nafarroako Administrazio Auzitegiari dago-kionez, aipatu zuen "sistema informatikoak eta telematikoak ezartzeko proiektua, auzitegi horrek emandako ebazpenak hedatzea eta alor juridikoko eragileek horien berri izatea ahalbidetzeko".

2005eko maiatzean, garai hartan foru parlamentaria zen Miguel Izu Belloso jaunak gai horri buruzko idatzizko galdera bat aurkeztu zuen, honakoa aipatuz: "legegintzaldiaren erdia iragan da eta oraindik ezinezkoa da Administrazio Auzitegiaren ebazpenak Foru Komunitatearen web orri- an ikustea; aldiz, beste erakunde batzuen ebazpenak ikusgai daude, Nafarroako Auzitegi Ekonomiko Administratiboarenak eta Nafarroako Kontseiluarenak kasu; hori dela-eta, Gobernuari

eskatu nion azaltzeko zer urrats egin ziren Nafarroako Administrazio Auzitegiak emandako ebazpenak publikoki eskuratu ahal izateko eta zer aurreikuspen zeukan helburu hori lortzeko zego- kionez." 2005eko ekainaren 6an emandako erantzun- ean (2005eko azaroaren 21eko 121. NPAON) Lehendakaritza, Justizi eta Barne kontseilariak honakoa adierazi zuen: "Ekitaldi honetan zehar, aurrerapausoak eman dira aipaturiko lanetan; horietako batzuk jadanik garatzen ari dira, proiektu hau lehenbailehen gauzatu dadin; izan ere, egia da Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizi eta Barne Departamentu honek legegintzaldi- rako dituen helburuetako bat dela."

2007ko martxoan, foru parlamentari berak berriro aurkeztu zuen galdera bat gai horri buruz, eta bertan ondokoa zioen: "Ia bi urte igaro direne- an eta legegintzaldia bukatzeaz dagoelarik, orain- dik ezin dira Nafarroako Administrazio Auzitegia- ren ebazpenak kontsultatu, Nafarroako Gobernuaren web gunean "Nafarroako Administra- zio Auzitegiaren ebazpenen bilatzailea" izeneko atal bat agertzen den arren. Bilatzaile horretan bilatzeko aukera batzuk eskaintzen dira: arlo, aztertutako xedapen, testu libre eta bestelako bila- keten arabera. Hala ere, edozein aukeratuta ere, bilatzaileak beti erantzun bera ematen du: "ez da emaitzarik aurkitu"; beraz, ondorioztatu behar dugu bilatzaileak oraindik ez duela Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen datu-basea sarturik." Nafarroako Gobernuak ez zion erantzun- nik eman galdera horri.

Une honetan egoera bere horretan dirau. Web gunean "Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen bilatzailea" izeneko atal bat agertzen da, baina bilatzaile hori ez dago erabilgarri.

Horregatik, Nafarroako Gobernuak honako gal- dera hauei erantzun diezaien nahi dut: Zein arra- zoi direla-eta sartu da Nafarroako Gobernuaren web orri- an ebazpenen bilatzaile bat, ebazpenik ez dagoelako ez dabilena? Gobernuak mantentzen al du aurreko legegintzaldian bete ez zen helburu hori, alegia, ebazpenen kontsulta ahalbidetzeko? Zure ustez, noiz kontsultatu ahalko dira egiazki aipatu ebazpenak?

Iruñean, 2007ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, joan den martxoaren 17ko Iruñeko manifestazioaren deialdiak eta haren antolamenduak eta abarrek sorturiko dituen gastuei buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, joan den martxoaren 17ko Iruñeko manifestazioaren deialdiak eta haren antolamenduak eta abarrek sorturiko dituen gastuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 15ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak manifestazio baterako deia egin zuen, martxoaren 17rako, "Foruak eta askatasuna. Nafarroa ez da negoziagarria" lelopean.

Garai hartan Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko eleduna zen José Miguel Nuin Moreno jaunak manifestazio haren kostuari buruzko galdera bat aurkeztu zuen, 2007ko martxoaren 14an, idatziz erantzuteko. Nafarroako Gobernuak ez zion galdera horri erantzunik eman legegintzaldia amaitzeko falta ziren hiru hilabeteetan.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu: Zerbateko kopurua egiten dute deialdiko gastuek eta manifestazioaren antolaketak? Zein kontzepturen-gatik? Nafarroako Gobernuko aurrekontu orokorren zein kontusailen kargura ordaindu ziren? Nafarroako diru publikoaren kargura ordaindu al ziren, baita ere, manifestaziora gonbidatutako autonomia erkidegoetako lehendakarien edo bestelako agintarien gastuak?

Iruñean, 2007ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**Deialdiak, hautaprobaren eta merezimendu-balioespenaren bidez teknikari-
en kidegoaren baitan euskarazko teknikari itzultzaileen bi zerrenda
osatzekoak, bata parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta
bestea aldi baterako administrazio-kontratazioetarako.**

Hautaprobaren eta merezimendu-balioespenaren bidez teknikarien kidegoaren baitan euskarazko teknikari itzultzaileen bi zerrenda, bata Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta bestea aldi baterako administrazio-kontratazioetarako, osatzeko deialdiei buruz Zerbitzu Orokorretako buruak eta Prentsa, Argitalpen eta Protokolo buruak eginiko txostenak eta Kontu-hartzailetzak emandako kreditu-ziurtagiria ikusirik, HONA ERA-BAKIA:

1. Hautaprobaren eta merezimendu-balioespenaren bidez teknikarien kidegoaren baitan euskarazko teknikari itzultzaileen bi zerrenda osatzeko deialdiak, bata Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta bestea aldi baterako administrazio-kontratazioetarako, onestea.

2. Baimena ematea aipaturiko deialdien ondoriozko gastuetarako, legebiltzarreko gastu-aurrekontu indarduneko 24020 kontusailaren ("Lanpostuen betetzeari dagozkion dietak eta gastuak") kargura egin daitezten.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezten agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Deialdiak, hautaprobaren eta merezimendu-balioespenaren bidez teknikari-
en kidegoaren baitan euskarazko
teknikari itzultzaileen bi zerrenda
osatzekoak, bata parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta bes-
tea aldi baterako administrazio-kon-
tratazioetarako.**

I. Deialdia, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako zerrenda bat egitekoa.

OINARRIAK

1. Xedea.

Deialdi honen xedea da izangaien zerrenda bat osatzea hautaprobaren eta merezimendu-balioespenaren bidez, izangaiok euskarazko itzultzaile gisa prestatzeko eta langintza horretan hobetzeko, zerbitzuan beharrezana sortzen denean.

Aurreko horrek Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzen duen Erregelamendua izanen du araubide, zeina Mahaiaren 1994ko ekainaren 21eko Erabakiaz onetsi baitzen.

2. Izangaien baldintzak.

2.1 Izangaiak honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Nafarroako Parlamentuko jarduneko funtzionarioa izatea eta bete nahi den lanpostuarena baino maila apalagokoa.

b) Lizentziatu, ingeniari edo arkitekto titulua edukitzea, edo ofizialki horien baliokidetzat hartzen den titulu bat.

c) Ofizialki onartutako euskara-titulua izatea (EGA edo Hizkuntza Eskola Ofizialaren Gaitasun agiria nahiz Euskaltzaindiarena).

2.2 Aurreko baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharrekoak direla ulertuko da, bai eta hautatzeko prozeduran zehar, izendapenaren unera arte.

3. Hautapen prozesua.

Probak ez dira 2007ko azaroa baino lehenago hasiko eta, betiere, erabaki honen bidez onetsitako bi deialdietako arau komunetan ezarritakoaren arabera gauzatuko dira.

4. Lanposturako deia eta zerrendaren indarraldia.

Lanposturako deia eginen da honako irizpide hauei jarraituz:

– Izangaiei dei eginen zaie beharrianak sortu ahala, zerrendako hurrenkera errespetatuz.

– Prestakuntza-aldian jardutearen ondorioz sortzen den zerbitzu berezietako egoerak, gehienez ere, hogeita lau hilabete iraunen du. Epe hori bete ahalko da aldi bakarrean edo aldi laburragoetan zatikatuz. Epe hori amaituta, beste hamabi hilabetez luzatzen ahalko da egoera, non eta prestakuntza aldiari sartzeko beste funtzionariarik ez dagoen.

– Zerbitzu berezietako aldi bakoitzaren iraupena laburragoa baldin bada ezarritako gehieneko epea baino, aldia amaitzean izangaia zerrendako lehen tokira pasako da, epe hori bete arte, salbu eta hurrenkeran lehentasuna duen beste pertsona bat kasu berean dagoenean.

– Lanpostu bat prestakuntza aldiari betetzeko izendapenari uko egiten bazaio, edo prestakuntza aldiari jarduteari norbere gogoz uzten bazaio, gainerako izangaiei dei eginen zaie, kasu kasuko zerrendan ezarritako hurrenkerari jarraituz, eta prestakuntza aldiari uko egin dion langilea zerrenda horretako azken tokira pasako da.

– Nafarroako Parlamentuak zilegi izanen du prestakuntzarako zerrenda erabiltzea harik eta zerrenda horretako funtzionario guztiek zerbitzu berezietako egoeraren gehieneko epea agortzen duten arte.

II. Deialdia, aldi baterako administrazio-kontratuzko zerrenda bat egitekoa.

OINARRIAK

1. Xedea

Deialdi honen xedea da hautapenaren eta merezimendu-balioespeneren bidez osatzea euskaraz-

ko itzultzaile lanpostuan aritzeko izangaiei zerrenda bat, Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharrei aldi baterako erantzuna emateko, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak aldi baterako kontratatzeari buruzko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat.

2. Parte-hartzaileen baldintzak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean izangaiei honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea izatea.

b) Adinez nagusia izatea.

c) Lizentziatu, ingeniari edo arkitekto unibertsitate-titulua edukitzea.

d) Ofizialki onartutako euskara-titulua edukitzea (EGA edo Hizkuntza Eskola Ofizialaren Gaitasun agiria nahiz Euskaltzaindiarena).

e) Kasu kasuko eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa edukitzea.

f) Eginkizun publikoetan jarduteko desgaitasun ez edo etenarazpenik ez izatea eta administrazio publiko bateko zerbitzutik bereizita ez izatea.

Baldintza horiek guztiak agiri bidez egiaztatu behar dituzte hautatzen diren eta aldi baterako kontratazioarako deia jasotzen duten izangaiek, adierazten zaien unean, kontratua formalizatu aurretik.

Aurreko baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharrekoak direla ulertuko da, eta bete behar dira, halaber, hautapen-prozeduran zehar eta kontratatzearen unean ere.

3. Hautapen-prozesua.

Probak ez dira 2007ko azaroa baino lehenago hasiko eta, betiere, erabaki honen bidez onetsitako bi deialdietako arau komunetan ezarritakoaren arabera gauzatuko dira.

4. Lanposturako deia eta zerrendaren indarraldia.

4.1 Prozesua gainditu duten izangaiei deitu ahalko zaie Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharren arabera, deialdi honetan ezarritako oinarriekin eta aplikatzeak diren gainerako arauekin bat, eta aldi baterako administrazio kontratua egiten zaie, itzultzaile gisa, A mailan; lanpostu horri dagozkion lansariak izanen dituzte, berez plantillako langile finkoei dagozkienak izan ezik.

4.2 Izangaiei deitezakoan, kontuan hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko

Langileriaren Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren xedapen gehigarriko 3. idatz-zatiak ezarritakoa (Nafarroako Foru Komunitatean ezgaitasuna duten pertsonen enplegua lortzeari buruzko zenbait alderdi arautzen dituen maiatzaren 31ko 16/2002 Foru Legeak emandako testuarekin betiere).

4.3 Kontratatuari alta emanen zaie Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean eta bertan afiliatuko dira. Beraz, haiek ordaindu beharko dute kasuan kasuko kuota eta PFEZaren atxikipenaren zenbatekoa.

4.4 Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak sei urteko indarraldia izanen du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko aldi baterako langileak kontratazeari buruzko Erregelamendua rekin bat.

III. Bi deialdien arau komunak.

1. Eskabideak.

1.1 Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira (Navas de Tolosa kalea, 1 - Iruña), edo Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetakoren batean.

Prestakuntzarako izangaien eskabideak I. eranskinean adierazitako ereduaren arabera izanen dira, eta aldi baterako kontrataziorako izangaienak, II. eranskinekoaren arabera. Eskabide horiek eskuratu ahaliko dira Nafarroako Parlamentuaren erregistro orokorrean nahiz Nafarroako Parlamentuko webguneko (www.parlamento-navarra.es) "lanpostuetarako deialdiak" izeneko atalean. Eskabidean, izangaiek adierazi beharko dute ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere erreferentzia gisa harturik eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna.

1.2 Eskabidearekin batera aurkeztuko dira alegaturiko merezimenduen zerrenda eta merezimen du horiek frogatzeko agiriak (jatorrizkoak edo behar bezala kautoturiko fotokopiak), 6.1 arauan ezarritakoari jarraituz.

1.3 Ezgaitasuna duten izangaiek zilegi izanen dute denbora- edo baliabide-egokitzapenak eskatzea, baldin eta beharrezkoak badira ariketaren bat egiteko. Kasu horretan, hori eskabidean adierazi beharko dute, eta aparteko orri batean azaldu beharko dute zer ezgaitasun daukaten eta zein diren eskaturiko egokitzapenak. Horrekin batera, minusbaliatuak direla frogatzeko agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

2. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

3. Behin-behineko zerrendak.

Eskabideak aurkezteko epea iraganik, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak jarriko ditu jendaurrean, bai Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean bai www.parlamento-navarra.es webgunean.

Egun horretatik aurrera eta ondoko bost egun baliadunetan, izangaiek erreklamazioak egin ahaliko dituzte edo eskabidean egindako akatsak zuzendu.

Izangai bazterturik ez badago, zuzenean onetsiko dira behin betiko zerrendak.

4. Behin betiko zerrendak.

Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrendekin batera jakitera emanen da hautapoba egiteko eguna eta tokia. Hautapoba ez da azaroa baino lehenago egingen.

5. Epaimahai kalifikatzailea.

5.1 Hauexek izanen dira epaimahai kalifikatzaileko kideak:

Epaimahaiburua: Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izendatuko duen parlamentaria.

Ordezkoa: Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izendatuko duen parlamentaria.

Epaimahaikidea: Ander Irizar Apaolaza jauna, Nafarroako Parlamentuko itzultzaileen kidegoko teknikaria, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak hautatua.

Ordezkoa: Xabier Aristegieta Okiñena jauna, Nafarroako Parlamentuko itzultzaileen kidegoko teknikaria, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak hautatua.

Epaimahaikidea: Jon Etxegarai Agara jauna, Nafarroako Gobernuko Itzulpen Ataleko teknikaria.

Ordezkoa: Josemari Sestorain Zestau jauna, Nafarroako Gobernuko Itzulpen Ataleko teknikaria.

Epaimahaikidea: Fernando Rey Escalera jauna, Nafarroako Gobernuko Itzulpen Ataleko teknikaria.

Ordezkoa: Mikel Taberna Irazoki jauna, Nafarroako Gobernuko Itzulpen Ataleko teknikaria.

Epaimahaiko idazkaria: Mikel Iriarte Zilbeti jauna, Nafarroako Parlamentuko itzultzaileen kidegoko teknikaria.

Ordezkoa: Carlos Gil Martínez jauna, Nafarroako Parlamentuko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua.

5.2 Baldin eta, abstentziorako eta errefusatzeko legez ezarritako arrazoiak aplikatuz, epaimahaiaren osaketan aldaketarik balego, aldaketa hori argitara emanen litzateke izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera.

5.3 Epaimahaia hautaprobak hasi aurretik eratu beharko da.

5.4 Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa bildu gabe.

5.5 Epaimahaiak gehiengo ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatu eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

5.6 Epaimahaiak aholkulari adituak erabili ahaliko ditu probarako. Aholkulari horiek dagozkien espezialitate teknikoetan aritzera mugatuko dira, eta epaimahaiari horietan baizik ez diote lagunduko.

6. Hautapen prozesuaren garapena eta balioespena.

6.1 Merezimenduak balioesteko fasea.

Izangai bakoitzari gehienez ere 20 puntu esleituko zaizkio. Horretarako, alegatu eta frogaturiko merezimenduak honela sailkatu eta balioetsiko dira:

A. Merezimendu akademikoak (5 puntu gehienez)

Hautapen-prozesuan parte hartu ahal izateko aurkezturiko lizentziatu-tituluaz gain beste lizentziatu-titulu batzuk edukitzea:

– 3 puntu, itzulpengintza eta interpretazio lizentziatura bat edukiz gero, baldin eta haren ikasketan ikasketan arlo nagusi gisa agertzen bada euskaratik eta euskarara eginiko itzulpena.

– 2 puntu, honako titulu hauetako bakoitzeko: itzulpengintza eta interpretazio lizentziatura, zeinaren ikasketan euskaratik eta euskarara eginiko itzulpena ez den agertzen ikasketan arlo nagusi gisa, zuzenbidea, zientzia politikoak edo euskal filologia.

Gratuondoko unibertsitate-ikastaroak, ikasgai nagusi gisa euskaratik eta euskarara eginiko itzulpena dutenak: 2 puntu.

B. Parlamentu-erakundeetan edo administrazio publikoan zerbitzua ematen aritu izana euskarazko itzultzaile edo interprete postu batean, horretan jarduteko baldintza gisa ezarri bazen lizentziatu, ingeniari edo arkitekto unibertsitate-titulua eta ofizialki onartutako euskara-titulua (E.G.A., Hizkuntza Eskola Ofizialaren Gaitasun agiria edo Euskaltzaindiarena) edukitzea: puntu bat urte bakoitzeko, gehienez ere 5 puntu batu arte. Ez da 6 hilabetez beherako esperientziarik balioetsiko.

C. Sektore pribatuan zerbitzua ematen aritu izana euskarazko itzultzaile edo interprete postu batean, horretan jarduteko baldintza gisa ezarri bazen lizentziatu, ingeniari edo arkitekto unibertsitate-titulua eta ofizialki onartutako euskara-titulua (E.G.A., Hizkuntza Eskola Ofizialaren Gaitasun agiria edo Euskaltzaindiarena) edukitzea: 0,75 puntu urte bakoitzeko, gehienez ere 5 puntu batu arte. Ez da 6 hilabetez beherako esperientziarik balioetsiko.

D. Itzulpen argitaratuak, zeinetan euskara sorburu- edo xede-hizkuntza den, baldin eta itzulpen horietan izangaia itzulpenaren egile gisa identifikatuta agertzen bada: gehienez ere 5 puntu, epaimahaiaren irizpidearen arabera.

E. Soil-soilik Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen kasuan, aintzat hartuko zaizkie Nafarroako Parlamentuan egiazki emandako zerbitzuak, zerbitzu-urte bakoitzeko puntu bana esleituz, balioespen-fase honetarako ezarritako 20 puntuko mugara iritsi arte.

6.2 Hautaprobaren fasea.

Merezimendu-balioespena bukatu ondoren, epaimahaiak Parlamentuaren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko du haren emaitza, eta, gutxienez ere hiru egun baliodun lehenagotik, hautaprobaren eguna iragarriko du.

Hautaprobaren fasea bi ariketa baztertzailez osaturik egonen da, eta honela gauzatuko da:

a) Lehen ariketa: idatzizko itzulpena. Gehiengo puntuazioa: 50 puntu.

Ariketa honetako eginkizuna da epaimahaiak ezarritako lau testu itzultzea: euskarazko bi (bata, izaera orokorrekoa nahiz literatur arlokoa, eta bestea, gai juridiko-politiko bati buruzkoa), gaztelanira itzuli beharrekoak, eta gaztelaniazko beste bi (bata, izaera orokorrekoa nahiz literatur arlokoa, eta bestea, gai juridiko-politiko bati buruzkoa), euskarara itzuli beharrekoak. Testu horietako bakoitzaren gehieneko puntuazioa: 12,5 puntu.

Izangaiek gehienez ere hiru orduko denbora izanen dute ariketa hau egiteko, eta beraiek ekar-

tzen dituzten euskarri inprimatuko hiztegiak erabili ahalko dituzte.

Ariketa hau gainditzeko beharrezkoa izanen da lau testuetako bakoitzaren itzulpenak testu bakoitzaren gehieneko puntuazioaren ehuneko 50 lortzea.

Ariketa honetan plika itxien sistema aplikatuko da. Plikak ekitaldi publikoan irekiko dira, eta ekitaldi hori gutxienez hogeita lau ordu lehenago iragarriko da Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean.

b) Bigarren ariketa: euskarazko parlamentu-mintzaldi baten gaztelaniarako aldebereko interpretazioa egitea. Gehieneko puntuazioa: 30 puntu.

Ariketa hau gainditzeko, gehieneko puntuazioaren ehuneko berrogeita hamar lortu beharko da.

7. Probak gainditu dituztenen zerrenda eta agiri-aurrezpena.

7.1 Merezimenduak balioetsi eta probak kalifikatu ondoren, probak gainditu dituztenen zerrendak argitaratuko ditu epaimahaiak, eta haietan, puntuaziorik handienetik txikienerako hurrenkeran adieraziko dira izangaien izenak. Zerrenda horiek Nafarroako Parlamentuaren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko dira.

7.2 Izangaien artean gerta litezkeen puntuazio-berdinketak ebazteko, honako irizpide hauek erabiliko dira:

a) Prestakuntzarako deialdia: eskaerak aurkezteko epearen azken egunean antzinatasun handiena aitortuta nor duen hartuko da aintzat. Horrela ere berdinketak bere horretan irauten badu, zozketa bidez ebaztuko da.

b) Aldi baterako langileen kontratazioa: berdinketak ebazteko, irizpide hauek hartuko dira aintzat, aipatzen diren hurrenkeran: lehen ariketan lortutako puntuazioa eta bigarren ariketan lortutako puntuazioa. Horrela ere berdinketak bere horretan badirau, zozketa bidez ebaztuko da.

7.3 Prestakuntzarako zerbitzu berezietan administrazio-egoeran egotearen adierazpena lortzeko edo, kasuko administrazio-kontratua tarteko, itzul-tzaile-lanpostuan aldi baterako jarduteko, gainditutako izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte dei egiten edo kontratazioa jakinarazten zaien egunetik aurrera hamar egun naturaleko epean:

a) Prestakuntza-zerrendan dauden funtzionarioek:

– Deialdian baldintza gisa ezarritako titulu akademikoen fotokopia konpultsatua edo titulua esku-

ratu ahal izateko eskubideak ordaindu izanaren frogagiriarena, baldin eta dokumentazio hori ez bada aurkeztu merezimendu-balioespina egiteko faserako.

b) Aldi baterako kontrataziorako zerrendan gaindituak:

– NANaren fotokopia konpultsatua.

– Administrazio publiko bateko zerbitzutik berezia ez egoteari eta eginkizun publikoak betetzeko desgaitasunik edo etenarazpenik ez izateari buruzko adierazpena.

– Hautapen-prozesu honetan parte hartu ahal izateko baldintza gisa ezarritakoak betetzearen frogagirien kopia kautotuak edo fotokopiak (haien konpultsa egin ahal izateko, jatorrizkoekin batera aurkeztu beharko dira), baldin eta dokumentazio hori ez bada aurkeztu merezimendu-balioespina egiteko faserako.

– Halaber, kasuko eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, Mahaiak zehazturiko fakultatibo edo erakundeak eginikoa.

Aurreko idatz-zatietan aipatutako agiriak aurkeztea ezinezkoa gertatzen dela behar bezala frogatzen denean, zuzenbidean onarturiko edozein frogabide erabiliz frogatu ahalko da deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla.

7.4 Kasuko zerrendak osatzen dituzten izangaiak dei egiten zaie deialdien oinarrietan ezarritakoari jarraituz, eta betiere errespetatuko da prestakuntzan aritzekoak diren izangaiek deituak izateko duten lehentasuna aldi baterako kontrataziorako izangaien aurretik.

8. Errekurtsoak

8.1 Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsuetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

8.2 Nafarroako Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko erabakitzen dituzten gainerako egintzen

aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

I. ERANSKINA

Eskaera, euskarazko itzultzaile gisa jarduteko Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen zerrenda bat osatzeko deialdian parte hartzekoa

_____ jaunak/andreak, zeina Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioa baita, _____ lanpostuan diharduena,

AZALTZEN DU:

Ikusirik deialdi bat onetsi dela (___ zenbakiko eta 2007ko _____aren ___ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala) euskarazko teknikari itzultzaile gisa prestakuntza jasotzeko zerrenda bat hautapoben eta merezimendu-balioespenaren bitartez osatzekoa, deialdi horretan parte hartzeko baldintza guztiak betetzen dituela.

Deialdiaren arauetara jarraituz, erantsitako agiri batean zerrendatu dituela, behar bezalako hurrenkeran, alegaturiko merezimenduak eta aurkezturiko frogagiri egokiak.

ESKATZEN DU:

Onartua izatea deialdi horretan, kasuan kasuko hautapobetan parte hartzeko.

Iruñean, 2007koaren(e)an.

(sinadura)

II. ERANSKINA

Eskaera, euskarazko teknikari itzultzaile gisa jarduteko aldi baterako administrazio kontrataziorako zerrenda bat osatzeko deialdian parte hartzekoa

_____ jaunak/andreak, Espainiako nazionalitatea duenak, adinez nagusia, _____ zenbakiko NANaren jabe, 19__ko _____aren __an _____

_____ (jaiotza-tokia)an jaiotak, eta _____ (kalea, zenbakia, solairua, posta kodea, hiria) helbidea duenak (telefono finkoa: _____; sakelakoa: _____; posta elektronikoko helbidea: _____),

AZALTZEN DU:

Ikusirik deialdi bat onetsi dela (___ zenbakiko eta 2007ko _____aren ___ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala) sei urteko indarraldia izanen duen zerrenda bat hautapoben eta merezimendu-balioespenaren bitartez osatzeko, horretan oinarriturik Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharren arabera euskarazko itzultzaileen aldi baterako administrazio kontratazioak egiteko, baldintza guztiak betetzen dituela deialdi horretan parte hartzeko.

Deialdiaren arauetara jarraituz, erantsitako agiri batean zerrendatu dituela, behar bezalako hurrenkeran, alegatu dituen merezimenduak eta aurkezturiko frogagiri egokiak.

Ez duela ezgaitasunik/Ezgaitasun bat duela, eskabidearekin batera frogatzen duena.

Duen ezgaitasuna dela-eta, egokitzapena eskatu nahi duela (minusbaliotasunaren nondik-norakoak eta behar diren egokitzapenak aparteko orrian azalduko dira).

Halaber, hau ere adierazten du:

Ez duela karguan aritzea galarazten dion eritasunik ez eta akats fisikorik edo psikikorik ere.

Eginkizun publikoetan jarduteko desgaitasunik edo etenarazpenik ez duela eta administrazio publiko bateko zerbitzutik berezia ez dela izan.

Deialdian baldintza gisa ezarritako titulazioak badauzkala eta eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentzia gisa hartuta.

Iruñean, 2007koaren(e)an.

(Sinadura)

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	